EL SR ALCALDE: Sí... yo puedo demostrarlo porque así consta, y... hemos hablado del tema tres veces. Yo creo que se han dado las explicaciones necesarias, he explicado también el procedimiento de urgencia, el por qué de este procedimiento de urgencia, porque estábamos trabajando en otra dirección, y ahora que nos hemos visto obligados a cambiar de dirección lo traemos aquí con urgencia, pero no sé... señalar que no hemos hablado del tema cuando lo hemos tratado tres veces, y hoy es la cuarta vez... pues me parece que no es correcto.

CARRION JAUNA: Esan dut hitz egin dugula baina ez zegokion lekuan. Horregatik. Zuzenketa hori egiteko, e? Beste guztia ulertu dugu.

ALKATE JAUNA: Lekua esaten duzu Udal Kudeaketa Batzordean izan behar zela eta Udal Kudeaketa Batzorde horretan...ni kanpoko bilera batean nintzen, baina Lupe egon zen bileran eta Lupek aipatu zuen, eta nik bi Bozeramaile Batzordetan aipatu dut gaiaren inguruan, orduan iruditzen zait nahikoa azalpen eman dugula ulertzeko zergatik...modu honetan ekartzearen zergatia, eta gaiaren mamiaz ere aritu gara, eta idazkari jaunarekin horrela ekartzearen legezotasunaz ere mintzatu nintzen, eta ikusten genuen aukera hau zen, eta horrela egin dugu, arazo handiago bat ez dadin sortu.

CARRION JAUNA: Bai, Igor, barkatu, gaur ekartzen dena da zerbitzuaren kontratua luzatzeko proposamena, bai? Hala da. Eta jada martxan dago dekretu bidez, dago prozedura martxan...

ALKATE JAUNA: Ez bada...ez bada!

CARRION JAUNA: Ez?

ALKATE JAUNA: Kontratua luzatzea ez dago martxan, daude tramite administratiboak egiten, baina plegua ekarri beharko bagenu onartzera ere,

CARRION JAUNA: Ez plegua ez...

ALKATE JAUNA: Ez, baina nik bai, zuk ez duzuna esaten nik bai esan dezaket, eta plegua egiteko izapidetu behar zen tramitazioa. Eta tramitazio hori izapidetzen jardun duten bezala teknikariek, agindu zitzaizen, nahiz eta Udalbatzak ez duen onartu plegu hori esleitzea, baina tramitazioa egiteko agindua eman beharra dago, kontratuaren luzapena izapidetzeko tramitazioa ere agindu, agindu behar den bezala. Behin Udalbatzak onartzen duenean, onartzen baldin badu, luzapen hau, egikaritu beharko da dagokion dokumentuarekin, luzapen horren agindua. Baina hori ez da egin oraindik, hori egingo da hilabetea amaitu baino lehen. Egin dena da, adierazi zaie teknikariei izapidetu behar direla tramiteak

EL SR CARRIÓN: He dicho que hemos hablado pero no donde correspondía. Por eso, para hacer esa corrección, ¡eh! Todo lo demás ya lo hemos entendido.

EL SR ALCALDE: Dices que el lugar apropiado era la Comisión de Gestión Municipal y en esa Comisión de Gestión Municipal... yo estaba en una reunión fuera, pero Lupe estuvo en esa reunión y Lupe mencionó cómo estaba el asunto, y yo mismo lo he mencionado en dos Juntas de Portavoces, por lo que me parece que ya hemos dado suficientes explicaciones para entender el por qué... el por qué de traerlo de esta manera, y también hemos hablado del fondo del tema, también hablé con el Sr. Secretario sobre la legalidad de traerlo así, y la opción que veíamos era esta, y así lo hemos hecho, para que no surja un problema mayor.

EL SR CARRIÓN: Sí, Igor, perdona, lo que se trae hoy es la propuesta de prórroga del contrato del servicio, ¿sí? Efectivamente. Y ya está en marcha por decreto, ya está en marcha el procedimiento...

EL SR ALCALDE: Pues no...pues no!

EL SR CARRIÓN: ¿No?

EL SR ALCALDE: La prórroga del contrato no está en marcha, se están realizando trámites administrativos, pero si tuviéramos que traer el pliego para su aprobación,

EL SR CARRIÓN: No, el pliego no...

EL SR ALCALDE: No, pero yo sí, lo que tú no dices yo sí lo puedo decir, y para la elaboración del pliego debía realizarse la tramitación. Y al igual que el personal técnico ha estado realizando dicha tramitación, se les encargó, aunque el Pleno no ha aprobado la adjudicación de dicho pliego, realizar la tramitación, hay que encargar también la tramitación de la prórroga del contrato, tal y como se requiere. Una vez aprobada por el Pleno, si lo aprueba, esta prórroga deberá ejecutarse con el documento correspondiente, la orden de dicha prórroga. Pero eso no se ha hecho todavía, eso se hará antes de que acabe el mes. Lo que se ha hecho es decir al personal técnico que hay que realizar los trámites necesarios para poder hacer las cosas en

dagozkien epeetan gauzak egin ahal izateko...eske ez baldin badugu hori egiten, ez dugu dagozkion epeetan prozedura burutzea lortuko, eta horregatik, izapideak martxan jartzeko tramitazio hori egin da, hala dagokion bezala, nik ulertzen dut normaltasun osoaren barruan sartzen dela.

Barkatu, beste galderarik?

ÁLVAREZ JAUNA: Bueno, nik uste... hasiera batean, ... bueno guk alde bozkatuko dugu. Nolanahi ere, gai hau oso errepikakorra da, eta, nolanahi ere, zuk, Gobernu Taldearen aldetik, hiru aukera planteatu zenituen, hemen azertu genituenak. A aukera hau zen, B aukera zen nolanahi ere lizitazio berria egitea, eta C aukera zen Udalak langileak zuzenean kontratatzea. Horiek ziren zeuden hiru aukerak, une hartan... Are gehiago, horretaz hitz egin zen, nik ez dakit Gobernu Batzordean izan zen edo batzorderen batean izan zen. Nolanahi ere, nire ustez, gai hau dekretu bidez onartu ahal izateaz gain (alkatetzaren bidez egin baitaiteke), merezi du Langileen Batzorde batean sakonki jorratzea, nik beti aldarrikatu dudan zerbait da hori. Izan ere, xedapen berriekin eta legegintzaldi berriarekin, baita 3. puntuari agertzen den txostenarekin ere, nik uste dut, normalizatu ez, baizik eta nolabait homogeneizatu egin beharko dela kontratazioen gai hau guztia eta orain arte egiten ari diren moduak, horren ondorio baita, pixka bat, gaur egun dugun egoera. Adibidez, kasu honetan lizitazioa dugu garbiketen gaian, greba baten ondoren konpromiso bat hartu zelako, 2026ra arte igoera batzuk egiteko, une honetan ezin direnak egin, ezin dira bete, nolabait ere kontratua luzatzen ez bada eta kontratu horrek nolabait ere ezartzen ez badu. Baina, lizitazioak kopuru jakin batzuetakoak izan ziren, eta, nolabait ere, enpresa une honetan hartzen ari den konpromisoak desberdinak dira. Hori horrela da, baina, nolanahi ere, enpresaren kontua da, hor dagoen gaia da.

Baina arazo bera izan dezakegu lorezainen gaian. Arazo berbera. Eta hirugarrenean, kiroldegiaren gaiarekin egin dezakegu topo; izan ere, egunen batean kiroldegia udal erakundeetara pasatzen bada,

los plazos correspondientes... si no lo hacemos, no vamos a conseguir que se lleve a cabo el procedimiento en los plazos correspondientes, por lo que se ha realizado la tramitación de puesta en marcha, como corresponde, yo entiendo que entra dentro de total normalidad.

Perdón, ¿alguna otra pregunta?

EL SR ÁLVAREZ: Bueno, yo creo que... hasiera batean, ... bueno, nosotros votaremos a favor, pero en cualquier caso este es un tema muy recurrente, que en todo caso, tú, por parte del Equipo de Gobierno planteó la posibilidad de las tres opciones, que aquí se barajaron, la A era esta opción, la B era la de en todo caso hacer una nueva licitación y la C era la contratación directa de los trabajadores por parte del Ayuntamiento, eran las opciones que se barajaban, en aquel momento...cuando se habló incluso, yo no sé si fue en la Junta de Gobierno, o en alguna Comisión que hablamos. En todo caso, este es un asunto que yo creo que a parte de que se pueda aprobar por decreto, que se puede hacer por tema de Alcaldía, es una cuestión que sí merece la pena que en una Comisión de Personal se trate a fondo, que es algo que yo siempre he reivindicado, porque con las nuevas disposiciones y con la nueva legislatura, incluso con el informe en el punto 3 que se aparecen en el sentido de que hay que, no normalizar, sino que de alguna forma habrá que homogeneizar todo el tema de las contrataciones y las formas en que hasta ahora se está realizando, y fruto de eso es un poco la situación en la que nos encontramos, por ejemplo, el caso de que en este momento tenemos una licitación en el tema de limpiezas, que después de una huelga hubo un compromiso, de unas subidas hasta el 2026, que en este momento no se pueden realizar, no se pueden cumplir, a no ser que de alguna forma se prorrogue el contrato y ese contrato pues de alguna forma lo establezca. Pero, las licitaciones fueron de unas cantidades y de alguna forma los compromisos que la empresa está en este momento adquiriendo son diferentes. Eso es así, pero en todo caso es un tema de la empresa, es un asunto que está ahí.

Pero nos podemos encontrar con el mismo problema en el tema de los jardineros. Exactamente con el mismo problema. Y el tercero, nos podemos encontrar con el tema del

kiroldegiko langileek dituzten hitzarmenekin egin dezakegu topo, eta lizitazio horietan ere egoera berean aurki gitezke.

Hau da, arazo handi samarra dugu aurrean, alde horretatik konpromiso batzuk daudelako. Horregatik, nik uste dut funtsean egin behar dena dela, beharbada, gauzak argi eta garbi jarri paperean, eta nolabait ere ikusi zer egin daitekeen; izan ere, orain arte, une jakin batean, gauzak egin badira, gero eragozpenak etortzen dira, baina, noski, eragozpenek, lizitazioetako kopuruez ari garenean, gero ondorioak izango dituzte, oso puntualak eta zehatzak, esan dezagun.

Beraz, nik planteatzen dudana zera da, kontratazio gai hau eta aurrez aurre ditugun kontu horiek Pertsonal Batzorde batean lantzea, baina bihotzetik hitz eginda, enpresa batzordea aurrean dugula; izan ere, azken finean, zeharka pertsonak dira, erakundeak dira, eta horiek ere badute beren iritzia, Osoko Bilkuran, Bozera maileen Batzordean... hitz egin dezakegula alde batera utzita. Nik ez diet esango, ez diot inori balioa kenduko, baina kasu honetan Pertsonal Batzordea da gakoa, nik uste dut hori dela kontua, zeren eta, berriro diot, garrantzi handiko egoera da, konpromiso batzuk hartu baititugu, eta nik ez dakit bete ahal izango ditugun, ez dakit, ez dakit legez bete ahal izango diren, hori da Udal honek duen arazo bat, guk guztiok daukaguna, Udala osatzen dugunoz ari naiz. Beraz, nik eskatzen dudana da gai hau Batzorde batean aztertzea eta nolabait ere konpontzeko formulak bilatzea, eta ahal bada, gutxienez argi hitz egitea, eta bakoitzak zer dagoen esatea... hauek baitira ondorioak...

ALKATE JAUNA: Eskerrik asko, Iosu. Pozten nau esan duzuna entzuteak, hemen esan ondoren ia ez dela informatu, hemen hitz egin direla gai honen inguruan, konkretu honen inguruan, hiru aukera zeudela mahai gainean, hiru aukera horietatik bat ezinezkoa zela epeengatik, hau da, langileak edo

polideportivo, porque si algún día el polideportivo pasa a entidades municipales nos podemos encontrar con los convenios que de alguna forma están disfrutando los trabajadores del polideportivo, nos encontramos con que en esas licitaciones, nos encontramos con la misma situación.

Es decir, que tenemos un problema delante bastante gordo. Porque hay una serie de compromisos en ese sentido. Por eso, yo creo que lo que se trata fundamentalmente es quizás poner las cosas claras, sobre el papel, y ver lo que de alguna forma es posible hacer, porque si de alguna forma hasta ahora, en algún momento determinado se han hecho cosas, que luego vienen los reparos, pero claro, los reparos, cuando hablamos de cantidades en las licitaciones luego tienen sus consecuencias, muy puntuales y determinadas, vamos a decirlo.

Por lo tanto, yo lo que planteo es que este tema de contratación y estas cuestiones que tenemos en frente las tratemos en una comisión de personal pero a corazón quitado, con el comité de empresa delante, porque al fin y al cabo que indirectamente son personas, entidades, que de alguna forma tiene también su opinión, más allá de que podamos hablar en el Pleno, en la Junta de Portavoces...yo no voy a decirles, no voy a quitar el valor a nadie, pero lo que es la Comisión de Personal en este caso es la clave, yo creo que esa es la cuestión, porque es una situación, insisto, de una envergadura en la cual hemos adquirido unos compromisos, que yo no sé si los vamos a poder cumplir, no lo sé, no lo sé si se van legalmente a poder cumplir, ese es un problema que tiene este Ayuntamiento, que tenemos todos nosotros, me refiero a los que formamos el Ayuntamiento, por lo tanto yo lo que pido es que este asunto se trate en una Comisión, y buscar las fórmulas que de alguna forma se puedan subsanar, y si es posible, por lo menos hablar claro, y cada uno decir lo que hay...y estas son las consecuencias...

EL SR ALCALDE: Gracias, Josu. Me alegra oírte, después de que se ha dicho que prácticamente que no se había informado. Aquí se ha hablado en relación a este asunto, sobre este asunto concreto, que había tres opciones sobre la mesa, de que una de ellas no era posible por los plazos, es decir, que

zerbitzua publikora pasatzea epe hauetan ezinezkoa zela, hori zuk adierazi duzun bezala ezinezkoa zen...eskerrik asko adierazteagatik beste bi aukera ere egondu zirela mahai gainean, guk hitzartutako akordioak errespetatzearen aldekoak ginen, nahiz eta ez zegoen teknikarien aldeko irizpiderik, eskerrik asko hori mahai gainean jartzeagatik ere zeren eta gu ados ginen bai enpresarekin eta bai langileekin Udal honek hartutako konpromisoak bete egin behar genituela, bazegon beste talde bat ere, EH Bildu Udal taldea, kasu honetan, adierazi zuena prestutasuna konpromiso horiek berresteko, nahiz eta teknikarien irizpena ez zen aldekoa, eta beste bi taldeak ez zineten prest konpromiso horiek zituzten ardurak edo, nolabait, zuen gain hartzeko, eta eskertzen dut hain argi hemen aditzera eman izatea.

Nik gaia puntu bakarrean ekarri dut bai Bozeramaile Batzordera eta baita...nik, edo udal talde honek, baita Batzordera ere, gaiaren urgentzia zela eta. Eta urgentzia hau ezagutze hau teknikarien irizpide ez aldekoa zela, orain jaso da. Orain arte, nik dakidanez, eta guk hemen eramaki dugun ibilbidean ikusi izan ditugu bai garbitzaileen plegu hau eta baita beste plegu batzuk ere enpresako hitzarmenarekin ez zutela eragozpen etengarririk, edo kontrako txostenik. Nik behizat ez ditut...eta orain jaso dugu. Eta jaso dugunean eta erantzun bat eman behar dugunean modu urgentean egoera bati egoera hori ez dadin okerrerago joan, proposatu dugu eta hitz egin dugu, zuk esan bezala, gaiari buruz; noski, hitz egin beharko dugu Batzordean baditugulako beste hainbat plegu egoera berdinean daudenak, eta zuk aipatu dituzunak badira, baina liburutegikoa gogoan dut, etxez etzeko laguntza zerbitzua, Prebentzio Komunitarioa, Artxiboko kontratazioa ere badugu...baditugu hainbat kontratazio aztertu behar direnak, guztiak zeren baitan dauden langileak kontratatuta, Sektoreko Hitzarmenaren bitartez, edo Enpresako Hitzarmenaren bitartez, eta noski, erronka potentea daukagu. Eta hori da nik lehen mahai gainean jartzen dudana eta eskertzen dut zuk ere kezka berdina izatea. Eta eskertuko nizuke, mesedez, mikrofona jaitziko bazenu...

Besterik?

no era posible el paso del personal o del servicio al ámbito público en estos plazos, eso era imposible tal y como lo has señalado... Muchas gracias por decir que había también otras dos opciones sobre la mesa, nosotros éramos partidarios de respetar los acuerdos que habíamos pactado, aunque no había informe favorable por parte del personal técnico, muchas gracias por ponerlo sobre la mesa porque nosotros estábamos de acuerdo con la empresa y con las y los trabajadores en que teníamos que cumplir los compromisos adquiridos por este Ayuntamiento. Hubo también otro grupo, el grupo municipal de EH Bildu, en este caso, que manifestó su disposición para ratificar esos compromisos, aunque el informe del personal técnico no era favorable, y los otros dos grupos no estabais dispuestos a asumir las responsabilidades que conllevaban esos compromisos, y agradezco que lo hayas explicado aquí de manera tan clara.

Yo he traído el asunto en un solo punto a la Junta de Portavoces, yo, o este grupo municipal, y a la Comisión por la urgencia del tema. Y que el informe del personal técnico no era favorable se ha sabido ahora. Hasta ahora, según tengo entendido, y en el recorrido que nosotros llevamos aquí hemos observado que tanto este pliego relativo al personal de limpieza como otros pliegos no recogían objeciones suspensivas al convenio de empresa, o informes en contra. Yo al menos no los tengo... y ahora recibimos esto. Y cuando lo hemos recibido y tenemos que dar una respuesta urgente para que una situación no vaya a peor, hemos propuesto y hablado, como tú dices, del tema. Por supuesto, tendremos que hablarlo en la Comisión porque tenemos también otros pliegos que están en la misma situación, los que tú has mencionado existen, pero me viene a la memoria también el de la biblioteca, el servicio de ayuda a domicilio, la Prevención Comunitaria, la contratación del Archivo... tenemos varias contrataciones que hay que analizar, para saber en qué condiciones está contratado el personal, si a través del Convenio Sectorial, o del Convenio de Empresa, y claro, nos enfrentamos a un reto potente. Eso es lo que yo he puesto antes sobre la mesa y agradezco que tu también tengas la misma preocupación. Y te agradecería, por favor, que bajaras el micrófono...

¿Algo más?

LEKUONA ANDREA: Bai, guk gai honen inguruan bai adierazi genuen hasieratik prest ginela langileek hainbeste hilabetetan borrokatutako eskubide horiek babesten zituen lizitazio horri bidea emateko, eta hori zela eta, eta uste dut azalpenetan agian falta zela, zeren eta guk gure erreflexioa, bilera horren ondoren-...lehengo astelehenean eduki genuela lehenengo aldiz honen berri, planteatzen genuena zen Tokiko Gobernuari dagokiola kudeaketako erabakiak hartzea, eta aldiz, Udaltzari, nahi baduzue...norabide politikoa. Eta orduan galdera egiten genizuen ea zergatik ekarri behar zen gai hau derrigorrez Udaltzara jakiten ez zela agian erabateko adostasuna egongo, eta ikusita zer dagoen guzti horren atzean, eta uste dut zenbateko batzuen inguruan eta hitz egin zenean, eta uste dut gaia hain konplikatu, garrantzitsua eta izanik, garrantzitsua dela ere jakitea zergatik etorri behar dugun gai honetara, zeren akaso beste gaiak ez dira derrigorrez Udaltzara ekarri behar, eta beste jarrera bat suertatu daiteke. Mahai gainean nahi nuen iruditzen zaidalako puntu garrantzitsua izan zela elkarrizketa hori eta gaur hona ekartzeko ere bai. Eskerrik asko.

ALKATE JAUNA: Bai, eskerrik asko zuri gogorazteagatik, prozedurak badaude kontratazio publikoko hainbat prozedura kopuruarengatik, bai Gobernu Taldean erabaki daitezkeenak, eta beste batzuk nahi eta nahi ez... alkateak ere badauka eskumena zenbait kontratazio burutzeko, eta delegazioa duten beste zenbait zinegotziek ere badituzte eskumenak zenbait kontratazio burutzeko, eta kopuruarengatik ez banago oker, milioi bat eurotik gorako kontratuak izapidetu behar direnean, eta bestela eskertuko nuke teknikariek zuzentzea, kopuru zehatz batzuetatik aurrera Udaltzara da kontratazioa egitearen eskumena duena, eta horregatik gai hau bere garaian Udaltzatik pasa zen bezala, orain ere Udaltzatik pasatzea komenigarria zela, edo beharrezkoa zela adierazi zidan idazkari jaunak. Eta kopuruak zehazten badituzte zuek, badagoelako obra eta zerbitzuen artean diferentziak...

IDAZKARI JAUNA: Organo eskumenduna Plenoa, ...eta kalkulatzeko kopurua, muga da dirusarreraren % 10aren muga, baina kopurua, beti (ez zaio ondo entzuten).

LA SRA LEKUONA: Sí, nosotras/os sobre este tema sí manifestamos desde el principio que estábamos dispuestas y dispuestos a dar paso a esa licitación que amparaba esos derechos que durante tantos meses habían peleado las y los trabajadores, y por eso, yo creo que quizá faltaba en las explicaciones, porque nuestra reflexión, después de esa reunión..., es que tuvimos conocimiento de esto por primera vez el pasado lunes, y lo que planteábamos era que corresponde al Gobierno Local tomar las decisiones de gestión, y al Pleno, si queréis... la vía política. Y entonces os preguntamos por qué era necesario traer este asunto al Pleno sabiendo que tal vez no iba a haber unanimidad, visto lo que hay detrás de todo esto, y creo que se habló también sobre unos importes. Creo que siendo este asunto tan complicado, tan importante, es importante también que sepamos por qué tenemos que traer este tema, porque quizá los otros asuntos no se tengan que traer necesariamente al Pleno, y puede haber otra postura. Quería ponerlo sobre la mesa porque me parece que ese diálogo fue un punto importante y también para traerlo aquí hoy. Muchas gracias.

EL SR ALCALDE: Sí, gracias a ti por recordarlo. Existen diferentes procedimientos de contratación pública que por el importe pueden acordarse en el Equipo de Gobierno y otros que no, el Alcalde también tiene competencia para realizar determinadas contrataciones y otros concejales con delegación también tienen competencias para llevar a cabo ciertas contrataciones. Si no me equivoco, teniendo en cuenta los importes, cuando hay que tramitar contratos por importe superior a un millón de euros, y si no es así agradecería que me corrigieran los técnicos, a partir de unos importes concretos es el Pleno Municipal el que tiene la competencia de realizar la contratación. Por ello, tal y como en su momento este tema pasó por el Pleno, me indicó el Sr. Secretario que ahora también era conveniente o que era necesario que pasara por el Pleno. Y si se fijan importes es porque hay diferencias entre obras y servicios.

EL SR SECRETARIO: El órgano competente el Pleno,... y el importe a calcular, el límite es del 10 % de los ingresos, pero el importe, siempre (no se oye bien lo que dice).

ALKATE JAUNA: Bada... zuzenketa eskertzen da, eta bozketara pasako dugu, ondo iruditzen bazaizue... Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

RODRIGUEZ JAUNA: Lehengo txostena esan dugu ez genuela euskaraz, eta bazegoen, Laurak bidali dit... 301/2023 ere euskaraz dago? Bidaliezadazue, bale?

KONTU-HARTZAILE ANDREA: Espedienteetan nire txostenak bi hizkuntzetan daude, eta ez dakit zergatik hemen jaso den bakarrik hizkuntza batean, baina bueno... espedienteetan bi hizkuntzetan dago. Bidaliko dizut.

11.-KREDITUEN XEDEA ALDATZEKO PROPOSAMENA 0109.603.01.151.00 PARTIDAN (UDALAREN LURZORU ONDAREA).

0109.603.01.151.00 partidan (Udalaren Lurzoru Ondarea) kredituen xedea aldatzeko proposamenari dagokion espedienteaz aztertu ondoren.

2023ko urriaren 23ko alkate proposamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengo da:

Aldeko botoak: 17, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (2) y EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Kredituen xedea alda dadila partidan 0109.603.01.151.00, lurzoruaren udal ondarea, 2023rako aurrekontukoa, hasierako Uria Harresia 3 xedea Mendelu 15en ordez aldatuz.

BIGARREN.- Kontu-hartzailatza Sailari honako akordioa jakinaraztea, udal aurrekontuan dagozkion doikuntzak egin ditzan.

EL SR ALCALDE: Pues... se agradece la corrección, y pasamos a votación, si os parece bien... ¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

EL SR RODRÍGUEZ: Hemos dicho que el informe anterior no estaba en euskera, y sí existía, me lo ha enviado Laura... ¿Existe también en euskera el 301/2023? Mandármelo, ¿vale?

LA SRA INTERVENTORA: En los expedientes mis informes están en las dos lenguas, y no sé por qué aquí se ha recogido sólo en una lengua, pero bueno... en los expedientes está en las dos lenguas. Te lo enviaré.

11.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL OBJETO DE CRÉDITOS EN LA PARTIDA 0109.603.01.151.00 PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO.

Examinado el expediente reativo a la propuesta de modificación del objeto de créditos en la partida 0109.603.01.151.00 Patrimonio Municipal del Suelo.

Vista la propuesta de Alcaldía de 23 de octubre de 2023.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 17, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (2) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA**:

PRIMERO.- Modificar el objeto de los créditos en la partida 0109.603.01.151.00, patrimonio municipal del suelo, del presupuesto para el año 2023, modificando el destino inicial Uria Harresia 3 por el de Mendelu 15.

SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo al Departamento de Intervención para que realice los ajustes correspondientes en el presupuesto municipal.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Aurrera jarraituko dugu? Hamaikagarren puntua kredituen xedea aldatzeko proposamena, partida konkretu baten ingurukoa, Udal Lurzoru ondareari dagokiona. Estitxuri eskatuko diot azalpena.

URTIZBEREA ANDREA: Bai, eskerrik asko, Igor. Bueno, bada egia esan puntu honetan oraintxe bertan diskutitu dugun puntuarekin antzekotasunak ditu, alde batetik urgentziatzko izaera hori, eta bestetik ere, diru..., langa batetik gorako kantidadeaz ari garelako, baina bueno, gaia hobeto ulertzeko testuingurutxo bat egingo dut, izan ere puntu honek Mendelu auzoarekin zerikusia du, eta Mendelu auzoko Stanley eraikinarekin, zuzenean.

Denok dakigu Mendelu auzoak gabezia handiak dituela, izan ere urte askotako esku-hartzerik ez dute izan, ekipamendu publikoa ez daukate ia, etxebizitzaren egoera oso kaxkarra da, eta azken denboran Mugondo etxebizitza taldeko arazo hori mahai gainean daukagu ere, beraz esango nuke Batzorde anitz egin dugunagatik Udal Talde politikoko guztiak nahiko ados gaudela auzo horrek merezi duela atentzio berezi bat. Hau kontuan edukita ikusi genuen...bueno, seguru aski denok dakizue Stanley eraikina salgai dagoela, eta suertatu zen eraikin hori erosteko aukera, izan ere eraikin hori geureganatuko bagenu aukera emango liguke, alde batetik auzoari falta zaizkion ekipamendu horiek emateko, eta bestalde ere, auzoarekin egin nahi den birgaitze eta berroneratze lanketa horietan hain garrantzizkoa den auzoko bulego edo Opengela bat irekitzeko lekua edukiko genuke. De hetxo oraintxe auzotarrek demandatzen duten zerbitzu bat da.

Bueno, ikusita eraikin honek hainbat eta hainbat onura ekarri diezazkiokeela auzoari, eta baita gero guri ere, aurrera egiteko honetan, hasi ginen eraikin hau erosteko lanketan jabeakideekin. Hor daukazue Udal Arkitekto andreak egindako balorazio ekonomikoak, baita ere eraikinaren inbentarioa, katastroaren dokumentuak, argazkiak, eta azkenean akordio batera iritsi gara jabeakideekin, non 569.344,40 eurotan erostea proposatzen den.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: ¿Seguimos adelante? Undécimo punto, propuesta de modificación del objeto de créditos en la partida 0109.603.01.151.00 Patrimonio Municipal del Suelo. Pido a Estitxu que realice la exposición.

LA SRA URTIZBEREA: Sí, gracias, Igor. Bueno, pues la verdad es que este punto tiene similitudes con el punto que acabamos de tratar, por un lado ese carácter de urgencia, y por otro, el dinero..., porque estamos hablando de un importe superior a un determinado límite, pero bueno, para entender mejor el tema voy a hacer un pequeño contexto, porque este punto tiene que ver con el barrio de Mendelu, y con el edificio Stanley del barrio de Mendelu, directamente.

Todas y todos sabemos que el barrio de Mendelu tiene grandes carencias, ya que no se ha intervenido en él en muchos años, apenas tienen equipamiento público, la situación de las viviendas es muy precaria y en el último tiempo tenemos sobre la mesa ese problema del grupo de viviendas Mugondo. Por lo tanto, diría que por las muchas Comisiones que hemos hecho todos los Grupos Políticos Municipales estamos bastante de acuerdo en que este barrio merece una atención especial. Teniendo esto en cuenta vimos... bueno, seguramente todas y todos sabéis que el edificio Stanley está en venta, y surgió la oportunidad de adquirirlo, ya que la adquisición de este edificio nos permitiría, por un lado, dotar al barrio de esos equipamientos que le faltan, y, por otro lado, también tendríamos espacio para abrir una oficina o una Opengela en el barrio, tan importante en esos trabajos de rehabilitación y regeneración que se quieren realizar en este barrio. De hecho, es ahora mismo un servicio demandado por el vecindario.

Bueno, viendo que este edificio puede aportar muchos beneficios al barrio, y luego también a nosotros, para ir avanzando, empezamos a tratar con los copropietarios la compra de este edificio. Ahí tenéis las valoraciones económicas realizadas por la Sra. Arquitecta Municipal, así como el inventario del edificio, los documentos del catastro, las fotografías, y por fin hemos llegado a un acuerdo con los copropietarios en el que se propone la compra por 569.344,40 euros.

Gertatzen da aurreko puntuan geratzen zen berdina, berez eraikin hau erosteko eskumena alkate jaunak edo Udal Gobernu taldeak dauka, beraz ez da Udaltzara ekartzen erostearen adostasuna, baizik eta dirua nondik aterako dugun. Hau erosteko lehenengo begiratu genuen ea diru-partidan dirua zegoen, eta diru-partida izan behar zen PMS bezala ezagutzen dugun edo Udalaren Lurzoru Ondarearen partidatik. Kontu-hartzaitzatik esaten zaigu baietz, dirua badagoela, baina diru horrek beste helburu edo beste...bai, beste helburu bat zuela, eta beraz hori da Udaltzara honetan onartu behar duguna, hau da, diru-partida horretarako zegoen helburua printzipioz, oker ez banago, hasiera batean zegoen pentsatuta Lapitz jaunaren jabetza, Villa Mendiako behe-gaina sotoa eta baratza erosteko, eta orduan, Udaltzara honek adostasuna ematen badio helburu hori aldatuko genuke Mendelu 15 eraikina erosteko. Bai? Ulertzen da desberdintasuna, ez?

Eta orduan, hori izango zen lehenengo puntua, eta bigarrena da, adostasunetara iristen bagara, Kontu-hartzaitza salari jakinarazteko Udal Aurrekontuari dagozkion gehikuntzak egin ditzan.

Ez dakit, dudarik edo galderarik dagoen?

CARRION JAUNA: Bai, Estitxu, eskerrik asko. Azalpena ona, baina bozkara ekartzen duguna da azken orrian dagoena, "modificación de objeto de crédito de la partida", ez?

KONTU-HARTZAILE ANDREA: (Ez da entzuten)

CARRION JAUNA: Modificación de...hori da...hori da.

KONTU-HARTZAILE ANDREA: (Ez da entzuten).

CARRION JAUNA: Orduan da, aurreko txosten guztia, jaso duguna STANLEY etxekoa, hori gero batzordetik pasa behar da onartzeko, edo jada zuzenean erosten dugu?

URTIZBEREA ANDREA: Bai, komentatu dudana bezala, kantidadea ez da langatik pasatzen, beraz eskumena alkatearena da, baina orain arte egin dugun bezala Batzordean informatu dugu aurreko

Ocurre lo mismo que en el punto anterior, en realidad la competencia para comprar este edificio la tiene el señor alcalde o el equipo de Gobierno municipal, así que no se trae al Pleno el acuerdo de compra, sino de dónde vamos a sacar el dinero. Para realizar esta compra, miramos primeramente si había dinero en la partida, y la partida tenía que ser la que conocemos como PMS o partida de Patrimonio Municipal del Suelo. Desde Intervención se nos dice que sí, que hay dinero, pero que ese dinero tenía otro objeto... sí, otro objeto, y por lo tanto eso es lo que tenemos que aprobar en este Pleno, es decir, que el objeto que tenía esta partida, en principio, si no me equivoco, estaba pensado inicialmente para comprar la propiedad del Sr. Lapitz, el sótano de Villa Mendi y el huerto. Por lo tanto, si este Pleno da su aprobación, cambiaríamos ese objeto para poder adquirir el edificio Mendelu 15. ¿Sí? Se entiende la diferencia, ¿no?

Entonces, este sería el primer punto, y el segundo es, si llegamos a acuerdos, ponerlo en conocimiento del Departamento de Intervención para que se realicen los incrementos correspondientes en el Presupuesto Municipal.

No sé si hay dudas o preguntas...

EL SR CARRIÓN: Sí, Estitxu, gracias. Buena exposición, pero lo que se somete a votación es lo que está en la última página, "Modificación del objeto de créditos de la partida", ¿no?

LA SRA INTERVENTORA: (No se oye)

EL SR CARRIÓN: Modificación de...eso es...eso es.

LA SRA INTERVENTORA: (No se oye).

EL SR CARRIÓN: Entonces, ¿es todo el informe anterior, el que hemos recibido sobre la casa STANLEY, eso tiene que pasar luego por la comisión para aprobarlo, o ya lo compramos directamente?

LA SRA URTIZBEREA: Sí, como he comentado, la cantidad no pasa del límite, por lo que la competencia es del Alcalde, pero como hemos hecho hasta ahora, hemos informado en la

pausoetaz, gertatzen dena da urgentziaz ekarri dugula urtea bukatzen ari delako, diru hori gastatu egin behar delako, eta akordiora iritsi ginelako aurreko astean, orduan horregatik egin dugu horren korrika, baina bai, noski, Batzordetik pasatuko da informatzeko, bai bai.

CARRION JAUNA: Guk bagenekien martxan zegoela hau dena, gu erabat ados gaude, gai hau gainera urtarrila bukaera otsailetik dator atzetik, eta erabat ados gaude honekin, bai gustatuko litzaiguke aurreko aste bukaeran eskatu genuela ea Loreak zuen txostena, Arkitektoak, ea zeukan txostena prest, esan zigun hor zeudela oraindik, eta eman zigun azalpenik gabe txostena, azaltzeko, arkitektoaren txostena. Beste guztia gustatuko litzaidake Batzorde bat hau azaltzeko, eta lehenbailehen jartzea eraikinaren erosketa martxan.

ALKATE JAUNA: Bai, Iosu?

ALVAREZ JAUNA: Beno, aber, kontuen intsuldaketaren gaia ekartzen bada, ados. Gauza bakarra gogoratu nahi dut: dagokion erosketa egin behar bada, pentsatzen dut tasazio bat egongo dela, txosten batzuk egongo direla, eta nolabait ere... Beno, Udalak eraikin bat erosten duenean tasazio bat egin behar da, eta nolabait ere... espero dut gai hori ere nolabait aurrera eramatea... Ez intsuldaketaren gaia, baizik eta gero dagokion tasazioa egotea, non erosten dugun eraikinaren balioa une honetan tasatzaile edo modulatzaile batek egin dezakeen.

URTIZBEREA ANDREA: Bai, esango nuke jaso duzuen dokumentazioan hori justifikatzen dela, e, Iosu? Bai, bai. Eta gero, Gonzalok esan duen bezala, tramitazioak aurrera egiten duen heinean Batzordean azalduko dira emango diren pausoak.

ALKATE JAUNA: Beste galderarik? Ez? Bozketara eramango dugu? Aldeko bozkak? Aho batez onartua

Comisión de los pasos realizados, lo que pasa es que lo hemos traído con urgencia porque se está acabando el año, porque ese dinero hay que gastarlo, y porque llegamos a un acuerdo la semana pasada, por eso lo hemos hecho tan deprisa, pero sí, claro, pasará por la Comisión para dar información, sí.

EL SR CARRIÓN: Nosotros sabíamos que todo esto estaba en marcha, nosotros estamos totalmente de acuerdo, además este tema viene de finales de enero o primeros de febrero, y estamos totalmente de acuerdo con esto. A finales de la semana pasada preguntamos si Lorea, la Sra. Arquitecta, tenía el informe preparado, nos dijo que todavía estaban ahí, y nos dio el informe sin explicación, y lo que sí nos gustaría es que se diera una explicación del informe de la arquitecta. Todo lo demás me gustaría que se reuniera la Comisión para explicar esto y poner en marcha cuanto antes la compra del edificio.

EL SR ALCALDE: Si, Josu

EL SR ÁLVAREZ: Bueno, a ver, si se trae el tema del traspaso de las cuentas, de acuerdo. Lo único quiero recordar que en caso de que haya que hacer la compra correspondiente, me imagino que habrá una tasación, habrá unos informes, y de alguna forma parte... que bueno, cuando se compra un edificio por parte del Ayuntamiento tiene que haber una tasación, y de alguna forma...espero que de alguna forma ese tema también se lleve adelante...No el tema del traspaso, sino que luego exista una tasación correspondiente, en la cual el valor del edificio, del que compramos, sea en este momento factible por parte de un tasador o de un modulador.

LA SRA URTIZBEREA: Sí, diría que en la documentación que habéis recibido se justifica esto, ¿eh, Josu? Sí, sí. Y luego, como ha dicho Gonzalo, a medida que avance la tramitación se irán explicando en la Comisión los pasos que se vayan dando.

EL SR ALCALDE: ¿Alguna otra pregunta? ¿No? Pasamos a votación? ¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**12.-PSE-EE-PSOE UDAL TALDEAK
AURKEZTURIKO PROPOSAMENA
MOURISCOT ERAIKINA MEMORIA-LEKU
IZENDATZEARI BURUZ.**

PSE-EE-PSOE udal taldeak aurkezturiko proposamena aztertu ondoren, 2023ko urriaren 6ko 10375SE zikloa, Mouriscot eraikina memoria-leku izendatzeari buruz.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengo da:

Aldeko botoak: 8, EAJ-PNV (6) eta PSE-EE-PSOE (2).

Aurkako botoak: 9, Abotsanitz (7) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU**: PSE-EE-PSOE udal taldeak aurkezturiko proposamena ez onartzea, 2023ko urriaren 6ko 10375SE zikloa, Mouriscot eraikina memoria-leku izendatzeari buruzkoa dena.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Eta hamabigarren puntura pasako gara, Alderdi Sozialista taldeak aurkezturiko proposamena Mouriscot eraikina memoria-leku izendatzeari buruz. Zuen da hitza.

ALVAREZ JAUNA: Guk ekarri ditugu Pleno honetara hiru mozio, eta hauetako bat izango litzateke "Mouriscot sea declarado lugar de la memoria". Aspaldidanik Alderdi Sozialistaren lana izan da askotan, Udaletxe honetan memoriaren inguruan lan egitea, eta azken finean, gauzak bere kontestuaren barruan bere...Orduan, orain dela...2022ko urriaren 31n, Memoria Demokratikoari buruzko legea onartu zen. Horren ondorioz, udalderri bakoitzaren, probintzia bakoitzaren, autonomia bakoitzaren eta nazionalitate bakoitzaren jardueran eragina izango zuten hainbat baldintza edo gai zabaldu ziren, eta, kasu honetan, guk egin genuen... nik uste dut lan bat egin zela, blog bat, hau da, zein den... zein

12.-PROPOSICIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL PSE-EE-PSOE EN RELACIÓN A LA DECLARACIÓN DEL EDIFICIO MOURISCOT COMO LUGAR DE MEMORIA.

Examinada la proposición presentada por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 10375 de 6 de octubre de 2023, en relación a la declaración del edificio Mouriscot como lugar de memoria.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 8, EAJ-PNV (6) y PSE-EE-PSOE (2).

Votos en contra: 9, Abotsanitz (7) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA**: desestimar la proposición presentada por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 10375 de 6 de octubre de 2023, en relación a la declaración del edificio Mouriscot como lugar de memoria.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: Y pasamos al duodécimo punto, proposición presentada por el grupo municipal PSE-EE-PSOE en relación a la declaración del edificio Mouriscot como lugar de memoria. Tenéis la palabra.

EL SR ÁLVAREZ: Nosotros hemos traído a este Pleno tres mociones, una de las cuales sería que "Mouriscot sea declarado lugar de la memoria". Desde hace mucho tiempo el Partido Socialista ha trabajado, en muchas ocasiones, en este Ayuntamiento en torno a la memoria, y en definitiva, las cosas dentro de su contexto... el 31 de octubre del año 2022, se aprobó una ley de la Memoria Democrática, que eso lo que haría, hacía extender una serie de condiciones o cuestiones que luego repercutía en lo que era la actividad de cada municipio, cada provincia, cada autonomía, cada nacionalidad...y en este caso nosotros incluso hicimos un...yo creo que se hizo un trabajo, un blog, en el sentido de que cual es...cual sería la

izango zen Memoria Demokratikoaren aplikazioa egungo testuinguruan, ezta? Eta agertzen zen elementuetako bat zen, Udalak atera zuen liburu bat ere badago, Memoriaren Lekuak izeneko, liburukote potoloa, Memoriaren Lekuak. Hartan ageri da Mouriscot eraikina. Orduan, hasiera batean, mozio bat aurkeztu dugu, urriaren 26ko Osoko Bilkurarako Mozioa. Udal Talde Sozialistak, Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, Memoria Demokratikoaren Lekuak dira esanahi historiko edo sinbolikoagatik edo memoria kolektiboan izandako eraginagatik, garrantzi bereziko gertakariak hartu dituen espazioa, higiezina, ingurua edo kultura ondare immaterial edo ukiezina, betiere gertakari horiek honako gai hauen ingurukoak izan badira: memoria demokratikoa, Espainiako herritarrek beren eskubide eta askatasunen alde egindako borroka, emakumeen memoria, eta, era berean, 1936ko uztaileko Estatu-kolpearen, Gerraren eta Diktaduraren aurkako erresistentziaren ondorioz herritarrek jasotako errepresioa eta indarkeria, erbesteak, eta balio demokratikoak berreskuratu eta horietan sakontzearen aldeko borroka. Kontuan hartuta Mouriscot eraikina aterpetxe gisa erabili zela frankismoak aberriraturako haurrentzat, uztailearen 18ko altxamendu militarrek erbesteratzerara behartu ondoren. Mouriscot eraikina ordena erlijioso batek zuzentzen zuen, eta bertan hartzen zituzten haurrak familiei edo erregimenetik gertu zeuden pertsonen eman aurretik, gurasoak kartzelan bazeuden, gurasorik ez bazuten edo ezin baziren itzuli. Aurrekoari erantsi behar zaio hiriko ostalaritza historikoaren azken aztarna dela eraikina.

Horregatik guztiagatik, Hondarribiko Udalak erabaki du Memoria Demokratikoaren Estatuko Idazkaritzari eskatzea Memoriaren Leku izendatzeko Mouriscot eraikina. Eraikin hori eraikin berezia da, eta bertan... beno... historikoki ere, bertan egon ziren 36an Bordelera, Frantziako aldera, joan ziren umeak, itzultzen zirenean eraikin horretatik igarotzen baitziren. Eraikin berezia da, badu historia, eta, horrenbestez, gure ustez, Memoriaren Leku da, eta, nolana ere, garrantzitsua da Hondarribian nolabait adierazi edo gogoratu ahal izatea. Kito. Besterik ez.

aplicación de lo que es la Memoria Democrática en lo que es el contexto actual, no? Y uno de los elementos que aparecía, incluso además hay un libro que lo sacó el Ayuntamiento, que era Lugares de la Memoria, que era un tocho así de gordo, Lugares de la Memoria, en él aparece el edificio Mouriscot. Entonces, en principio hemos presentado una moción “Moción para el Pleno del 26 de octubre, el Grupo Municipal Socialista a tenor de lo dispuesto en la Ley 20/2022 de la memoria Democrática, que en su artículo 41 la define, los Lugares de Memoria Democrática como aquellos espacios inmuebles, parajes, o patrimonio cultural, inmaterial o intangible en el que se han desarrollado hechos de singular relevancia por su significación histórica y simbólica, o por sus repercusiones en la memoria colectiva, y vinculaciones a la memoria democrática, la lucha de la ciudadanía española por sus derechos y libertades, la memoria de las mujeres, así como la represión y la violencia sobre la población como consecuencia de la resistencia al golpe de estado de julio del 36 y la guerra y la dictadura. Y la lucha por la recuperación y la profundización de los valores democráticos, teniendo en cuenta que el edificio Mouriscot fue utilizado como albergue para los niños repatriados por el franquismo, tras verse forzados al exilio, por la sublevación militar del 18 de julio. El edificio Mouriscot estaba regentado por una orden Religiosa, que albergaba a los niños antes de que fueran entregados a sus familias, o a personas cercanas al régimen, en el caso de que sus padres estuvieran encarcelados o no tuvieran o no pudieran regresar. A lo anterior hay que añadir que el edificio es el último vestigio de la hostelería histórica de la ciudad.

Por todo lo anterior, desde el Ayuntamiento de Hondarribia acuerda que se solicita a la Secretaría del Estado de Memoria Democrática la declaración del edificio Mouriscot como Lugar de la Memoria. En este edificio, es un edificio singular en el que...bueno...incluso históricamente eran los críos que de alguna forma en el 36 fueron hacia Burdeos, hacia la parte francesa, cuando volvían pasaban por este edificio. Es un edificio singular, que tiene su historia, y por lo tanto entendemos que es un lugar, Lugar de la Memoria, que en todo caso en Hondarribia sí es importante que de alguna forma lo podamos señalar, o recordar. Punto. Nada más.

Eskerrik asko.

ALKATE JAUNA: Eskerrik asko, zuri, Iosu. Aitzol, mesedez?

ARROYO JAUNA: Bai, arratsalde on. Bueno, Iosuk esandakoaren harira gaur hiru mozio ekartzea Memoriaren inguruan, bueno, guk lehenik eta behin aipatu behar dugu Memoriaren gaietan norabide jakin bat edo ikusten dela honetan, ez? Nik uste dut memoriaren gaia alderdikieretatik at egon beharko lukeen zerbait dela, orain arte Bakeola bezalako figura bat eduki dugu, bertan edo behintzat ateratzen zena adostasunetik eta abar ateratzen zena, eta kasu honetan mozio hau ez inorekin aukera paktatzeko hitz egin gabe, eta iruditzen zaiguna pixka bat deigarria edo kontraste askorik gabe. Zentzu horretan, gure hausnarketa...zergatik Mouriscot eta adibidez zergatik ez Kaizarra, izan zela milaka eta milaka hondarribiarrek bere herria utzi behar izan zuten lekua, Frantziara eo erbestera joateko, edo Guadalupeko Gotorlekua bezalako tokiak, ez? Baina bueno, eraikinari dagokionez, nik uste dut ...eta Iosu, legea aipatzeak behintzat bagaje bat edo behintzat babestu egiten gaitu, zuk esan bezala nagusiki eraikina erabili zen ostatu do aterpetxe bezala hurrei, baina horrek badu tranpa txiki bat, guk gure iturriak erabil genitzake, baina bueno, erabiliko dugu Pedro Barrusoren iturria, berak aipatzen duen bezala, ez? "tras la ocupación de la ciudad el hotel fue utilizado por las nuevas autoridades franquistas como lugar a donde se trasladaba a las personas que volvían de Francia, pero que eran afectas a los sublevados". Orduan ari gara balioan jartzen eraikin bat non gerra, diktadura, eta abarren biktimen aurka doan, hau da biktima horiek beste behin zapaltzen dituen, kolpisten familiek erabiltzen zituzten, ez errepublikaren edo antifrankistak zirenen biktimak edo, ez zituen kontuan hartzen, eta guk uste dugu legearen espiritua edo behintzat eraikin honen espiritua edo eraikin honetan esanahia ez datozela bat. Zentzu horretan ere faltan botatzen dugu, adibidez, eta akaso horregatik ere bai izendatu ditzakete memoria leku edo espazio, gerra garaian Mouriscot eraikina Ordena Publiko eta Garraio Komislagetegi bezala funtzionatu zuen, han egon ziren Angel Manterola, Domingo Azpiazu, Jose Miguel Etxaniz bezalako hondarribiarrak lanean, akaso enfoke horrekin uler genezake, baina esanahi

Muchas gracias.

EL SR ALCALDE: Gracias a ti, Josu. Aitzol, por favor

EL SR ARROYO: Sí, buenas tardes. Bueno, al hilo de lo que ha dicho Josu que hoy se traen tres mociones en torno a la Memoria, bueno, nosotros primeramente tenemos que señalar que en los temas de la Memoria se ve una determinada dirección, ¿no? Yo creo que el tema de la memoria es algo que debería estar al margen de partidismos, hasta ahora hemos tenido una figura como Bakeola, y lo que salía de ella salía al menos de un consenso, etc., y en este caso esta moción, sin hablar con nadie para pactar la opción, nos parece cuanto menos llamativo o sin mucho contraste. En este sentido, nuestra reflexión es... ¿por qué Mouriscot y, por ejemplo, por qué no Kaizarra? fue el lugar donde miles y miles de hondarribiarras tuvieron que abandonar su pueblo para ir a Francia o al exilio, o ¿por qué no lugares como el Fuerte de Guadalupe, no? Pero bueno, en cuanto al edificio, yo creo... y Josu, hablar de la ley nos da un bagaje o al menos nos protege. Como tú dices, este edificio se utilizó principalmente como alojamiento o albergue para niños y niñas, pero eso tiene una pequeña trampa, nosotros podríamos utilizar nuestras fuentes, pero bueno, vamos a utilizar la fuente de Pedro Barruso, como él mismo dice, ¿no? "tras la ocupación de la ciudad el hotel fue utilizado por las nuevas autoridades franquistas como lugar a donde se trasladaba a las personas que volvían de Francia, pero que eran afectas a los sublevados". Entonces, estamos poniendo en valor un edificio que va en contra de las víctimas de la guerra, la dictadura, etc., es decir, que las oprime una vez más, lo utilizaban las familias de los golpistas, no las víctimas de la república o de los antifranquistas, o no las tenía en cuenta, y nosotros creemos que el espíritu de esta ley o al menos el espíritu de este edificio o su significado no coinciden. En este sentido también echamos de menos, por ejemplo, y quizá por eso también pueden ser designados lugares o espacios de memoria, el edificio Mouriscot funcionó durante la guerra como Comisaría de Orden Pública y Transportes, allí estuvieron trabajando hondarribiarras como Angel Manterola, Domingo Azpiazu, José Miguel Etxaniz, y quizá desde ese enfoque lo podríamos entender, pero teniendo en

hau kontuan hartuta eta batez ere bere karga nagusia horrela zurituta, guk behintzat, kasu honetan kontra bozkatuko dugu. Eskerrik asko.

ALKATE JAUNA: Besterik? Gonzalo?

CARRION JAUNA: Guk argudioak hartuta, eta jakinda bizilagunekin hitz egin dela hona ekarri baino lehen, eta denen artean onartu dutela, gainera, Iosuk ekarritako sistema horretan, Aitzoleri ez diot debatituko hala den edo ez, gutxiagorik, mesedez...baina guk alde egingo dugu eta Partido Sozialistaren mozioaren alde egingo dugu.

ALKATE JAUNA: Oso ondo, eskerrik asko. Besterik? Koldo, mesedez?
